

Ibilgailuen zerga minusbaliotasuna daukientzat

Aurten arte %33ko minusbaliotasuna eukien herritarrek eta auto berezia eukienek ez eben ibilgailuen zerga ordaintzen. Aurten, ostera, aldatu egin da zerga horren ganeko foru araua eta Udalak aplikatu egin behar izan dau arau barri hori.

Aurrerantzean zerga-salbuespena mobitzeko arazoak daukiezanen auto bereziei aplikatuko jake (egokituei ez), baina ez 14 zerga-zalditik gorakoei.

Era berean, zerga-salbuespena %65etik gorako minusbaliotasuna daukienei baino ez jake aplikatuko. %33tik %65era bitartekoa daukienek ordaindu egin beharko dabe ibilgailuen zerga, ez bada minusbaliotasun hori mobitzeko ezintasunaren ondorio dala.

Arau honen bidez zera lortu gura da: ibilgailuen jaubeok ordaintzen dogun zerga horren salbuespenak beharizatik gehien



daukienei aplikatzea, hau da, munisbaliotasun handia daukienei edota mobiduteko arazoengaitik auto berezia behar dabenei.

Borondatezko ordainketa egiteko epea apirilaren 19tik maiatzaren 19ra artekoa izango da. Ordainketa egin ahal izateko, etxera helduko jatzuen dokumentua ondoko bankuetako batera eroan eta bertan agertzen dan kantidadea ordaindu beharko dozue: BBK, BBVA, CLP, BSCH, Caixa, Ipar Kutxa.

Impuesto de vehículos para personas minusválidas

La norma foral ha cambiado, por lo que ha sido necesario que el Ayuntamiento proceda a la modificación de este impuesto. A partir de ahora las exenciones fiscales se mantienen para los vehículos especiales (no los adaptados) de personas con movilidad reducida, pero se eliminan las de los vehículos con más de 14 caballos fiscales.

Por otra parte, la exención sólo afecta a aquellos que tengan una discapacidad reconocida de más del 65%. Quienes tengan una discapacidad entre el 33% y el 65% tendrán exención sólo en el caso de que sea por movilidad reducida y no en otro tipo de minusválidas.

Las fechas de pago voluntario del impuesto de vehículos son del 19 de abril al 19 de mayo. Para poder proceder al pago, llegará un documento o recibo que se podrá abonar en las siguientes entidades: BBK, BBVA, CLP, BSCH, Caixa, Ipar Kutxa.

